

Antxiñako fotografixia

Manuel Fraga Oñatin

Belaunaldi gaztiendako Franco guztiz jenerala (1890-1975) ixa prehistoria baldin bada be, **Manuel Fraga Iribarne** (1922-2012) askoz ezagunagua da, igaz arte irauñ ebelako bere bizi-bilibide luziak. Aitta galiziarra eukan, Lugoko Vilalbakua. Bigarren abizenak ondo erakusten doskun lez, politikuaren **ama euskalduna zan**. Bueno, eztakitt, ba, zenbateraiño. Izan be, Fraga, komeni xakonian, oso euskaldun agerketan zan, baiña hurrengo bueltan naparrak etziran beretzat euskaldunak. Eta bere ama naparra ez ezik, "frantsesa" be bazalako: **Behe Naparruako Izura** (Ostabat) herrixan sortutakua, Europatik datozen hiru santiago-bide alkarketan diran una polittian.

Dana dala, gure gizona argixa eta abilla izan bihar eben, nunbait, gerra osteko giro nahasi haretan, eta edadiagatik gerran zuzenian parte hartu barik, karrera akademiko eta politiko nabarmena egin ebelako. Fotografixa hau **Durun** atara otsaiñian Francoren gobernuko **Informaziño eta Turismoko ministrua** zan. Gerora Londresen enbajadore-lanetan jardun eben; diktadoria hil ondorengo transiziño-garaixan **presidente-orde** eta **gubernaziño-ministro** karguak bereganatu zittuan, Bittorixako eta Montejuurrako gertakari negargarrixak pasau ziranian; konstituziñuaren guraso be izan zan, eta harrezkeroko Fragaren historia ezagunagua egingo xatzue: **AP** eta **PP** partidu politikuen sortzaille, **Galiziako Xuntako presidente** (nork esan!) eta abar.

Kontua da, Oñatira **1967ko bagillaren 24an** (San Juan egunian, hain zuzen be) ekarri euenian, Urbixaraiño aillegau zala ministrua Land Roverrian, goiko zelai hareittara kotxientzako kamiñua zabal-ketako asmua eguelako. Zorionez, etziran asmuok gauzatu, eta eztot uste arrazoi ekologikuengatik izan zanik. Egun haretan botako eben Urbixako ermittako mezetan **Joxe Iñazio Lasa** Arantzazuko fraide eta idazliak geroztik sarrittan entzun dogun sermoiaren hasierako agur famaua: *"Excelentísimo señor ministro, excelentísimas autoridades y excelentísimos pastores, porque también vosotros sois excelentes..."*. Aitta Lasa Arantzazuko frantziskotarra luzaruan izan zan **Urbixako kapillaua** eta asko saiatu zan paraje eder hareik zainketan eta txukunketan.

Beheruzkotan **Unamendin** geratu ziran agintarixok sagardau-trago bat hartzera. Duruko txabola-aterpe hori lau urte lehenago jaso euen Oñatiko mendizale batzuek, aldizkari honetako beste orrialde batian gogoraketan dan moduan. **Manuel Fraga** erdixan agiri da; ezkerretik bigarrena **Reyes Korkostegi** da, hogetaka urtian Oñatiko alkate izan zana; beste gizakumiak Gipuzkoako **Diputaziñoeko teknikuak** ei dira; eta eskumako emakume gaztiak **Amaia Moiuia Sukia** oñatiarra eta erdi tapauta **Mari Pili Telleria Sukia** donostiarra, aurrekuaren lehengusiña; tartian daguen neskatillatxua Amaiaren alabaren bat izango da. Azkenengo hirurak Unamendin egozen egun pasa.

J. E.

Argazkixà Jose Luis Plazaolak ataratakua da eta guri Amaia Moiuak itzi dosku. Eskerrrik asko!

Oharra: Aurreko hilleko fotografixa zaharrian bedarra jaisteko kabliaren gaiñeko informaziño gehixago eskaketan geben. Ba, suertia eduki dogu, beste lau baserrittako kablien barri emun doskue-eta: Arantzazu auzoko Arrikruzen baserrira ez, baiña Aldaolako zubi inguruan eukain txabola batera jaisten euen; Garagaltzako Santipillaun kamarara zuzenian; baitta Zañartuko Mugartzakua baserrixan be; Zumeltzegiko torrian, berriz, jaso egitten euen kamarara kabliagaz. Argibidiok, hurrenez hurren, Jexus Etzezarretak, Jabi Osak, Luis Mugartzak eta Migel Etxaburuk eskuratu doskue. Milla esker danori eta ia besteren bat agerketan dan!